KANBO BIZI

LETTRE D'INFOS DE CAMBO

OCT/URRIA 2026

N°1

ÉDITO DU MAIRE



AUZAPEZAREN HITZA

Chères et chers Kanboar,

Nous inaugurons ce nouveau support de communication, une lettre d'information, un peu plus de six mois après notre prise de fonction.

En ce début de mandature, nos premières actions se sont orientées vers la prise en main et la compréhension du fonctionnement de notre collectivité, en allant notamment à la rencontre de chacun des agents municipaux, rouages absolument essentiels à l'efficacité de notre institution. Je tiens à leur rendre un hommage appuyé pour leur dévouement et leur professionnalisme.
Nous nous attelons également à écouter vos problèmes comme vos projets et à y répondre avec efficience et réactivité.

Le 1er avril je rencontrais le Préfet et le Sous-préfet, qui m'alertaient déjà sur la dégradation de la situation financière de notre ville. Ils me proposaient alors de bénéficier de l'accompagnement d'une personne dédiée au sein de la DGFiP, afin de réaliser une analyse financière approfondie de notre situation. Cette lettre d'information comporte une synthèse complète des résultats de cette analyse présentée début octobre.
Comme vous pourrez le constater, nos marges de manœuvre sont inexistantes et 2027 sera probablement l'année où notre niveau d'investissement sera proche de zéro.
La nécessaire frugalité à laquelle nous contraint notre situation nous permet néanmoins de nous concentrer sur la mise en place de projets essentiels, sans coût additionnel pour notre commune :

• Mise en place des CCC (Comité Consultatif Citoyen). Merci à toutes celles et tous ceux qui ont choisi de s'impliquer à nos côtés.

• Approfondissement et montages juridique et financier de nombreux projets d'envergure, pour le mi-mandat.

Plus que jamais, nous voulons préparer le temps d'un Cambo actif, accueillant, convivial et résilient.

Kanboar maiteak,

Komunikaziorako tresna berri hau, informazio gutun bat, lehen aldikotz plazaratzen dizuegu, gure karguak hartu genituenetik sei hilabete pasatxo iragan direlarik.

Agintaldi hastapen honetan, gure lehen urratsak Herriko Etxearen funtzionamendua hobeki ezagutzera eta ulertzera bideratu ditugu. Horretarako, bereziki, herriko langile bakoitzarekin elkartu gira, gure erakundearen eraginkortasunerako ezinbesteko eragileak baitira. Haien dedikazioa eta profesionaltasuna bereziki goraipatu nahi ditut.

Bestalde, zuen arazoak eta proiektuak entzuten ere ari gira, horiei ahal bezain eraginkorki eta laster erantzuteko xedearekin.

Apirilaren 1ean, prefetarekin eta suprefetarekin bildu nintzen. Ordurako, gure herriko finantza egoeraren okertzeaz ohartarazi ninduten. Gure finantza egoeraren azterketa sakona egiteko, Finantza Publikoen Zuzendaritza Nagusian (DGFiP) dagoen pertsona baten laguntza proposatu zidaten.
Informazio gutun honetan, urri hastapenean aurkeztu ziguten azterketa horren emaitzen bilduma osoa aurkituko duzue. Ikusten ahalko duzuen bezala, ez dugu inolako ekintza gaitasunik, eta 2027an gure inbertsio maila zerotik hurbil izanen da, seguraski.
Gure egoerak ezinbertzean eskatzen digun gastu-xuhurtasunak, halere, funtsezko proiektuetan indarrak jartzera bultzatzen gaitu, herriarentzat gastu gehigarririk sortu gabe:

- Herritarren kontsulta-batzordeak (CCC) plantan ezartzea. Gurekin engaiatzeko hautua egin duzuen guzieri, milesker!
- Garrantzi handiko proiektu anitzen sakontzea eta haien muntaketa juridiko eta finantzarioa, agintaldiaren erdialderako.

Sekula baino gehiago, Kanbo bizi, abegikor, elkarbizitza goxoko eta zailtasunei buru egiteko gai izanen den herri baten geroa prestatu nahi dugu.

AUPA KANBO ETA KANBOARRAK !

FINANCES :

UN HÉRITAGE QUI (NOUS) PLOMBE

Le 29 septembre dernier, la Direction générale des finances publiques (DGFiP) a présenté en commission des finances son analyse des comptes de la commune pour la période 2021-2025. Elle distingue deux phases : une situation saine en 2021-2022, puis une dégradation des principaux indicateurs à partir de 2023. Voici les principaux éléments de ce diagnostic.

FINANTZAK:

OZTOPATZEN GAITUEN OINORDEKOTZA

2026ko Irailaren 29an, Finantza Publikoen Zuzendaritza Nagusiak (DGFiP) herriko kontuen azterketa aurkeztu zuen finantza-batzordean, 2021-2025 aldiarentzat. Bi garai bereizten ditu: egoera sanoa 2021-2022an, eta adierazle nagusien okertzea 2023tik goiti. Hona diagnostiko horren elementu nagusiak.

DÉPENSES RÉELLES DE FONCTIONNEMENT	ÉPARGNE NETTE	DETTES	DURÉE DE REMBOURSEMENT	RESTANT À PAYER	TRÉSORERIE
+26 %	-77%	x 3,4	10 ANS	3,4 M€	57 JOURS
2021-2025	2023-2025 vs 2021-2022	Entre 2021 et 2025	de la dette	Sur les chantiers lancés	Une fois les factures réglées
	-9x Inférieur aux communes comparables				

LES DÉPENSES ONT COURU DEUX FOIS PLUS VITE QUE LES RECETTES

Entre 2021 et 2025, **les recettes de fonctionnement ont progressé de 11 % et les dépenses de 26 %.** Les charges de personnel, premier poste de dépenses, ont augmenté de 732 000 € (+ 25,9 %). Les intérêts d'emprunt ont été multipliés par 7,5. L'excédent annuel est passé de 910 000 € en moyenne en 2021-2022 à 250 000 € en 2023-2025.

L'ÉPARGNE S'EST EFFONDRÉE

L'épargne nette, c'est-à-dire ce qui reste pour investir une fois la dette remboursée, **a baissé de 77 % entre ces deux périodes**. Elle s'établit à 94 000 € en 2025, un niveau près de neuf fois inférieur à celui des communes comparables. Le taux d'épargne brute est de 8,7 %, légèrement sous la zone jugée satisfaisante (9 à 15 %).

GASTUAK SARRERAK BAINO BI ALDIZ BIZKORRAGO IBILI DIRA


2021 eta 2025 artean, **funtzionamendu-sarrerak % 11 igo dira eta gastuak % 26**. Langile-kargak, gastu-postu nagusia, 732 000 € handitu dira (+ % 25,9). Maileguaren interesak 7,5 aldiz biderkatu dira. Urteko soberakina, 2021-2022an batez beste 910 000 € zena, 250 000 €-ra jaitsi da 2023-2025ean.

AURREZKIA ERORI DA

Aurrezki garbia, hau da zorra ordaindu ondoan inbertitzeko gelditzen dena, **% 77 jaitsi da bi aldi horien artean**. 2025ean 94 000 €-koa da, antzeko herrietakoa baino ia bederatzi aldiz txikiagoa. Aurrezki gordinaren tasa % 8,7koa da, nahikotzat jotzen den eremutik (% 9-15) pixka bat azpitik.

L'ÉPARGNE S'EST EFFONDRÉE


Ce qui reste chaque année pour investir, une fois la dette remboursée (en milliers d'euros)



Source : DGFiP, analyse financière 2021-2025 ; commission des finances du 29 septembre 2026

LA DETTE A QUADRUPLÉ EN 5 ANS

En cours de la dette bancaire au 31 décembre (en millions d'euros) - 2026 - Prévision



Source : DGFiP, analyse financière 2021-2025 ; commission des finances du 29 septembre 2026

LA DETTE S'EST EMBALLÉE

L'encours de la dette bancaire est passé de 1,6 million d'euros en 2021 à 5,5 millions fin 2025. Il atteindra 6,4 millions fin 2026, avec l'emprunt contracté pour financer les chantiers en cours. **La capacité de désendettement est de près de dix ans.** À partir de 2026, le remboursement du capital dépassera 700 000 € par an.

ZORRA KONTROLIK GABE HANDITU DA

Banku-zorraren 1,6 milioi eurotik (2021) 5,5 milioira pasatu da 2025 bukaeran. 2026 bukaeran 6,4 milioi izanen da, martxan diren obrak finantzatzeko hartutako mailegua barne. Zorra kentzeko gaitasuna ia hamar urtekoa da. 2026tik goiti, kapitalaren itzulketak urtean 700 000 € gainditukо ditu.

ET DES ENGAGEMENTS HORS BILAN

La commune porte également 3,2 millions d'euros d'engagements qui ne figurent pas dans sa dette bancaire : 619 000 € dus au syndicat d'énergie TE64 pour l'éclairage public, à régulariser en comptabilité, et 2,6 millions d'euros de portages fonciers auprès de l'EPFL.

ETA BALANTZETIK KANPOKO KONPROMISOAK

Herriak 3,2 milioi euroko engeiamenduak ere baditu, banku-zorrean agertzen ez direnak: 619 000 € zor zaizkio TE64 energia sindikatuari argiteria publikoagatik, kontabilitatean erregularizatzeko, eta 2,6 milioi euro EPFLrekin egindako lur-eramateak (portage foncier).

UNE TRÉSORERIE EN TROMPE-L'ŒIL

Fin 2025, la trésorerie s'élève à 2 millions d'euros. Ce montant intègre des emprunts mobilisés en fin d'année. Une fois les factures de travaux réglées, elle représenterait 57 jours de dépenses courantes. La DGFiP relève des tensions de trésorerie récurrentes depuis 2018.

ITXURAZKO DIRUZAINTZA

2025 bukaeran, diruzaintzak 2 milioi euro ditu. Kopuru horrek urte bukaeran mobilizatutako maileguak barne hartzen ditu. Obren fakturak ordaindu ondoan, egungo gastuen 57 egunen parekoa litzateke. DGFiPek 2018tik errepikatzen diren diruzaintza-tentsioak nabarmentzen ditu.

DES CHANTIERS LANCÉS, MAIS PAS FINANCÉS

Pour le fronton mur à gauche, le terrain synthétique et l'orangerie d'Arnaga, **3,4 millions d'euros restaient à financer en ce début de mandat**. Les travaux d'Arnaga n'ont pas bénéficié d'aides de l'État ou des collectivités partenaires. De fait, nous avons décidé de mettre le programme de rénovation des écuries en pause.

ABIARAZI DIREN OBRAK, FINANTZATU GABE

Ezker-pareta pilotalekuari, belar sintetikozko zelaiari eta Arnagako iranjategiari dagokienez, **3,4 milioi euro finantzatzeko zeuden oraindik agintaldiaren hastapenean**. Arnagako lanek ez dute Estatuaren edo lankide diren erakundeen laguntzarik izan. Ondorioz, ukuiluen berritze-programa gelditzea erabaki dugu.

UN PATRIMOINE LOURD À PORTER

La commune dispose d'un patrimoine de 82 millions d'euros, soit plus de 12 000 € par habitant. C'est un atout, mais aussi une charge importante : son entretien représente un coût élevé au regard des capacités financières de la commune.

CES ÉLÉMENTS CONSTITUENT LE POINT DE DÉPART DU MANDAT. NOUS VOUS INFORMERONS RÉGULIÈREMENT DE LEUR ÉVOLUTION.

Source : DGFIP, analyse financière 2021-2025 de Cambo-les-Bains, présentée en commission des finances le 29 septembre 2026. Retrouvez le rapport complet de la DGFIP sur www.cambolesbains.fr

ONDARE PIZU BAT ERAKARTZEKO

Herriak 82 milioi euroko ondarea du, hau da biztanleko 12 000 € baino gehiago. Abantaila bat da, baina baita zama handi bat ere: hura mantentzeak kostu handia dakar herriaren finantza-gaitasunekin alderatuta.

ELEMENTU HORIEK DIRA AGINTALDIAREN ABIAPUNTUA. HAIEN BILAKAERAREN BERRI EMANEN DIZUEGU ALDIRO.

Iturria: DGFIP, Kanboko 2021-2025 finantza-azterketa, 2026ko irailaren 29ko finantza-batzordean aurkeztua.
Ikus txosten osoa Herriaren webgunean: www.cambolesbains.fr

RÉUNION PUBLIQUE FINANCES

7 nov 10h Bas Cambo
14 nov 10h mairie

BILKURA PUBLIKOAK FINANTZAK

Azar. 7, 10:00 Behereko Plazan
Azar. 14, 10:00 Herriko Etxean

RÉALISATIONS & PROJETS

RÉALISÉ DEPUIS LE 27 MARS

Disponibilité hebdomadaire du Maire et des autres élus

Participation des Kanboar non élus à toutes les commissions thématiques municipales (CCC mis en place)

Concertation des intéressés sur les projets Majeurs

Facilitation systématique à toutes les actions d'animation (utilisation simplifiée de la halle Jougleux, véhicules ...)

Implication des bars et des commerçants dans l'animation de la ville

Animations thématiques autour de la santé et du bien-être (octobre rose, don d'organe, don du sang ...)

Présence accrue de la police municipale sur le terrain

Programmation accrue de nos acteurs culturels locaux

ENVISAGÉ POUR 2027/29

Planification de la 1ère phase du plan vélo

Mise en place de parcours santé

Création de la foncière communale

Réfléxion sur l'avenir des sites Azantza, Falgaldea et Burlazteia (planification)

Jumelage et échanges transfrontaliers démultipliés

Innovation en matière d'accueil des nouveaux arrivants

Réalisation de la guinguette du parc Saint Joseph

Plaine des Sports en réflexion sur l'utilisation globale du site et début des aménagements

Refondation de l'Office de Tourisme et du Commerce

Création conseils des jeunes, des sages et des quartiers

ZOOM SUR LES CCC

Comités Consultatifs Citoyens

Ouvrir l'action publique aux habitants était l'un des engagements forts de notre programme. Huit mois après l'élection, il devient une réalité.

Cambo ne se construit pas seulement dans la salle du conseil municipal. Il se construit aussi dans ses quartiers, ses associations, ses entreprises, ses familles... et avec chacun de ses habitants. La participation citoyenne ne devait pas rester un slogan ; nous voulions en faire une nouvelle manière de faire vivre la démocratie locale.

Cette conviction nous guide depuis le début. Dès l'élaboration de notre projet, des Kanboar ont rejoint nos groupes de réflexion et l'ont nourri de leurs idées et de leur expérience. Plusieurs formes de participation ont ensuite été imaginées : comités de quartier, conseil des jeunes, conseil des sages, groupes de travail en amont des commissions municipales.

Les comités consultatifs citoyens en sont la première pierre.

Une mobilisation au-delà de nos attentes

L'appel à candidatures, lancé en mai, a été clos avant l'été. Nous espérions une soixantaine de volontaires : vous avez été plus de 110 à répondre présents ! Ce sont autant de parcours, d'expériences et de compétences, d'une grande diversité, prêts à être mis au service de la commune. Une vraie chance pour Cambo.

Une composition construite dans le dialogue

Cet élan méritait une méthode à la hauteur. Cet été, en associant les élus des groupes minoritaires, nous avons réparti les candidats entre les comités de façon équilibrée, en respectant autant que possible les choix exprimés par chacun.

Le 11 septembre, les participants se sont retrouvés dans les locaux de l'AIEC pour une première réunion de lancement. Le conseil municipal du 28 septembre a ensuite validé la composition des comités.

Et maintenant, place au travail !

Ce vote n'est pas une arrivée : c'est un point de départ ! Dès novembre, les comités commenceront leurs travaux. Il faudra échanger, proposer, débattre parfois, confronter les idées. Et surtout faire en sorte que cette participation nourrisse concrètement les projets de la commune.

Nous ne savons pas encore tout ce que cette démarche produira. C'est précisément ce qui la rend passionnante. Parce que nous croyons à l'intelligence collective, et à une démocratie locale vivante et ouverte, où chacun a quelque chose à apporter.

Merci !

Merci aux plus de 110 Kanboar qui ont répondu à l'appel, pour leur motivation et leur confiance. À nous tous, désormais, d'imaginer, de proposer, d'innover... et d'écrire ensemble le Cambo de demain.

LORPENAK ETA PROIEKTUAK

MARTXOAREN 27AZ GEROZTIK EGINA

Auzapeza eta bertze hautetsiak astero herritarren **eskura izatea.**
Hautetsiak ez diren Kanboarren **parte-hartzea** Herriko Etxeko batzorde tematiko guzietan (Herritarren Kontsulta Batzordeak – CCC plantan ezarriak).
Proiektu nagusien inguruan zuzenean hunkituak diren herritarren **kontsultatzea**.
Herriko animazio ekimen guziak **erraztea** (Jougleux Aretaoren, ibilgailuen eta bertze baliabideen erabilera errextuz...).
Ostatuen eta merkatarien **parte-hartzea indartzea** herriko animazioetan.
Osagarriaren eta ongizatearen inguruko **animazio** tematikoak antolatzea (Urri Arrosa, organoen ematea, odol ematea...).
Herriko Zaintzaren **presentzia** handitzea karriketan eta auzoetan.
Tokiko kultur eragileen **programazioa** indartzea.

2027/29 URTEENTZAT

Bizikleta planaren lehen fasea **planifikatzea**.
Osagarri ibilbideak **plantan ezartzea**.
Herriko ontasunen sozietatea **sortzea**.
Azantza, Falgaldea eta Burlazteia guneen geroaz **hausnartzea** eta haien antolamendua planifikatzea.
Parekatzeak eta mugaz gaindiko trukaketak azkarki garatzea.
Herrira bizitzera heldu diren pertsonen **harrera molde berriak** plantan ezartzea.
San-Josep parkeko guinguettea **sortzea**.
Kirol Eremua: gunearen erabilera orokorrari buruzko hausnarketa eta lehen antolamenduen abiatzea.
Turismo eta Merkataritza Bulegoa oinarritik **berrantolatzea**.
Gazteen, Zuhurren eta Auzoetako Kontseiluak **sortzea**.

AHOLKU BATZORDEAK

Herritarrei ekintza publikoa idekitzea gure programako ardatz nagusietako bat zen. Hauteskundeetatik zortzi hilabete ondoren, errealitate bilakatzen ari da.
Kanbo ez da bakarrik herriko kontseiluaren gelan eraikitzen. Auzoetan ere eraikitzen da, elkarteetan, enpresetan, familietan... eta bizilagun bakoitzarekin.
Herritarren parte-hartzea ez zen leloa izaten gelditu behar: tokiko demokrazia bizitzeko manera berri bat egin nahi genuen.
Sinesmen horrek gidatzen gaitu hasieratik. Gure proiektua prestatzen hasi orduko, kanboar batzuk gure gogoeta-taldeetara etorri ziren, eta beren ideiez eta esperientziaz aberastu zuten. Gero, parte-hartzearen hainbat modu pentsatu dira: auzo-batzordeak, gazteen kontseilua, jakintsuen kontseilua, herriko batzordeen aitzineko lantaldeak.
Herritarren aholku-batzordeak dira lehen harria.
Gure esperantzak gainditu dituen mobilizazioa
Maiatzean abiarazi genuen hautagaitzen deialdia uda aitzin bururatua zen. Hirurogei bat nahiant espero genituen: 110 baino gehiagok erantzun duzue! Hainbat ibilbide, esperientzia eta gaitasun dira, aniztasun handikoak, herriaren zerbitzuan jartzeko prest. Zorte handia Kanborentzat.

Elkarrizketan eraikitako osaera bultzada horrek metodo egoki bat merezi zuen. Uda honetan, gutiengo taldeetako hautetsiekin lanean elkartuz, hautagaiak batzordeen artean oreka onean banatu ditugu, bakoitzak adierazitako nahiak ahal bezainbatean errespetatuz.
Irailaren 11n, parte-hartzaileak AIECko egoitzan bildu ziren, lehen abiarazte-bilkura egiteko. Irailaren 28ko herriko kontseiluak ondotik batzordeen osaera onartu zuen.
Eta orain, lanera!
Bozketa hori ez da heltzeko puntu bat: abiapuntua baizik! Azaroan bertan hasiko dira batzordeak beren lanetan. Trukatu, proposatu, batzuetan eztabaidatu, ideiak elkarren aurrean ezarri beharko dira. Eta, batez ere, parte-hartze horrek herriaren proiektuetan zehazki eragin dezan lan egin.
Oraindik ez dakigu ekimen honek zer emanen duen. Hori da, hain zuzen, xarmagarri egiten duena. Adimen kolektiboan sinesten dugulako, eta tokiko demokrazia bizi eta ireki batean, non guztiek zerbait ekar baitezakete.
Milesker!
Deiari erantzun dioten 110 baino gehiago kanboarrei, beren motibazioagatik eta konfiantzagatik. Gu guztioi dagokigu, hemendik aitzina, irudikatzea, proposatzea, berritzea... eta biharko Kanbo elkarrekin idaztea.

TRIBUNE CAMBO EN AVANT JO AINTZINA

Chers Camboars

Nous partageons avec vous deux sujets majeurs pour notre commune : les finances et le projet Mariena.
La qualité de nos finances a permis, pendant le mandat précèdent, de réaliser plus de 17 millions d'investissements avec une capacité de désendettement à précisément 8,58 années, sachant que le seuil d'alerte admis par tous les observateurs de finances publiques se situe au-delà de 12 ans.
Les marges de manœuvre se restreignent, le Covid puis les conflits en Ukraine et israélo -palestinien générant une paralysie des investissements et une forte augmentation des coûts, alors qu'en parallèle chutent les subventions de nos financeurs habituels (Etat etc.).

Au 31/12/2025, l'excédent de fonctionnement de 920 000 €, ainsi que le niveau des charges de personnel de 54,28% (le seuil d'alerte est de 60%), corroborent notre bonne santé financière.
La décision du Conseil d'État confirme, elle, la légalité du permis de construire de « Marienia » et clôt tout contentieux. Nous nous en félicitons.
En effet, la création de logements doit rester une priorité ! Ce projet constitue donc une opportunité pour notre commune. Ce n'est pas la seule. Durant notre mandat, nous avons également œuvré pour une reconquête du bâti ancien. Cette décision de justice apporte désormais un cadre clair. Il est temps de passer du contentieux à la construction, des oppositions à l'action, et des discours aux réalisations.

C.DEVEZE E. AIZPURU J.N. MAGIS R. DUPRE P. ROUQUENELLE

Inscrivez-vous à :
Eman izena hemen:
KANBO BIZI
La lettre d'information
de Cambo-les-Bains

KANBO BIZI

SCANNEZ-MOI !
ESKANEATU NAZAZU!

COMMENT NOUS LIRE ? NOLA IRAKURRI GAITZAKEZUE?

LA LETTRE / GUTUNA
Par courriel
sur inscription sur le site de la ville
E-mezuz,
herriko webgunean izena eman eta.

LE BULLETIN / ALDIZKARIA
Dans votre boite aux lettres
à la mairie et en ligne
Zuen gutunontzian,
herriko etxean eta linean.

LES RÉSEAUX /SAREAK
Sur les réseaux sociaux
de la ville
Herriaren sare sozialetan.

Mandatura berri bat hasi da.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu konfiantza eman digutenei. Gure programaren baloreak biziarazten jarraituko dugu: ezkertiarrak, abertzaleak, feministak eta ekologistak.
Oposizio eraikitzailea, zaintzailea eta proposamenen indarra izaten jarraituko dugu.
Gure ekimenez, herriko kontseilua gehiengoz onartu du 2026ko Baxoko probak euskaraz pasatzearen aldeko mozioa.
Pozten gara. Euskararen ofizialtasunaren aldeko gure proposamena, berriz, hurrengo kontseilura atzeratu da.
Erantzunaren zain egonen gira.
Gure herrian, Etxebizitzak ere lehentasuna izaten jarraitzen du. Sei hilabeteko agintaldiaren ondoren, Hirigintza Batzordearen lehen bilkura oino goaitatzen dugu . Erne egonen gira eta proposamen indarra izanen gira !
Azkenik, Marienia eta laborantza lurren etorkizuna oraindik gai nagusiak dira gure herriarentzat . Egungo geiengoak konpromiso batzuk hartu ditu ; Orain, hitzetatik ekintzetarat pasatu behar du aterabide aldeko baterako.
Erabakitasunez eta arduraz jokatzen segituko dugu, herriko etxeari ahots alternatibo bat helarazteko eta oposizio eraikitzailea izaiteko.

Une nouvelle mandature commence.

Nous remercions chaleureusement celles et ceux qui nous ont accordé leur confiance. Nous continuerons à faire vivre les valeurs de notre programme : de gauche, abertzale, féministe et écologiste.
À notre initiative, le conseil municipal a adopté à la majorité une motion de soutien au passage des épreuves du baccalauréat 2026 en langue basque. Nous nous en félicitons. Notre proposition en faveur de l'officialisation de l'euskara a, quant à elle, été reportée au prochain conseil. Nous serons attentifs à la réponse qui sera apportée.
Malgré l'urgence de la thématique du logement à l'année qui est une priorité dans notrecommune, nous attendons toujours, après six mois de mandature, la première réunion de la commission urbanisme. Nous serons vigilants et force de propositions !
Enfin, la préservation des terres agricoles et l'avenir de Marienia restent des sujets majeurs pour notre commune. Des engagements ont été pris par la majorité actuelle : maintenant, il faut passer des paroles aux actes pour une issue favorable.
Nous continuerons à agir avec détermination et responsabilité pour faire entendre une voix alternative au conseil municipal et être une opposition constructive.

NAHI DUGUN HERRIA:www.kanbo-nahidugunherria.eu
Argitxu Hiriart-Urruty eta Philippe Bacardats

KANBO BIZI

L'INFORMATION MUNICIPALE AU PLUS PRÈS DE VOUS

Vous nous l'avez souvent dit : vous voulez être mieux informés. Voici comment nous allons vous tenir au courant, simplement et régulièrement.

QUATRE RDV PAR AN



Entre deux numéros, le site et les réseaux sociaux de la ville suivent l'actualité au jour le jour.

UNE LIGNE CLAIRE

Proximité. Cambo et ceux qui le font vivre : quartiers, associations, commerçants, agents
Pédagogie. Des décisions expliquées, des chiffres lisibles, des infographies.
Transparence. Ce qui avance, et ce qui prend du temps.
Pluralisme. Une tribune pour chaque groupe du conseil municipal.
Bilinguisme. Le français et l'euskara, dans nos publications comme dans la vie de la commune.

UNE COMMUNICATION RAISONNABLE

Des formats courts, le numérique en priorité, un seul bulletin imprimé par an.
L'objectif est clair : mieux informer, en dépensant moins.

ET VOUS ?

Une question, une idée de sujet, une initiative à faire connaître ? Contactez le Comité Consultatif Communication Externe.

KANBO BIZI

HERRIKO INFORMAZIOA ZUENGANDIK HURBILEN

Askotan erran diguzue: hobeki informatuak izan nahi duzue. Hona nola emanen dizuegun berri, xumeki eta erregularki.

URTEAN LAU HITZORDU

Bi zenbakiren artean, herriko webguneak eta sare sozialek egunean egunekoan segitzen dute berriak.

ARDATZ ARGI BAT

Hurbiltasuna. Kanbo eta bizia ematen dioten guztiak: auzoak, elkarteak, saltzaileak, langileak.
Pedagogia. Azalduriko erabakiak, zenbaki irakurgarriak, infografiak.
Gardentasuna. Aitzina doana, eta denbora hartzen duena.
Pluralismoa. Tribuna bat herriko kontseiluko talde bakoitzarentzat.
Elebitasuna. Frantsesa eta euskara, gure argitalpenetan herriaren bizian bezala.

KOMUNIKAZIO ARDURATSUA

Formatu laburrak, lehentasuna digitalari, urtean aldizkari inprimatu bakar bat.
Helburua argi da: hobeki informatu, gutiago gastatuz.

ETA ZUEK?

Galdera bat, gai baten ideia bat, ezagutarazi nahi duzuen ekimen bat? Jar zaitezte harremanetan Kanpo Komunikazio aholku batzordearekin.

Directeur de la rédaction : le maire - Peio Etxeleku